

## **Irakasgaia: Gizarte eta erakundeen psikologia II**

Gizarte Hezkuntzan Diplomatua

2. maila

4,5 kreditu

**Lauhilabetea:** 2.

**Saila:** Didaktika eta Eskola Antolakuntza

**Irakaslea:** Olaia Jimenez Arrieta

94.601.45.76

[olaia.jimenez@ehu.es](mailto:olaia.jimenez@ehu.es)

Bulegoa 24 zk.

**Eskola orduak:**

astelehena 16:30-18:00

osteguna 17:30-19:00

**Hasiera eta amaiera egunak:**

Otsailaren 11tik maiatzaren 29ra

### **Tutoretza orduak:**

Astelehena:

14:30-16:30

Osteguna:

14:30-17:30

19:00-20:00

## **I. HELBURU OROKORRAK**

- Erakundearen antolakuntzaren funtsak ezagutzea.
- Erakunde ezberdinen antolakuntza egiturak ezagutzea.
- Erakunde ezberdinen alderaketa egitea.
- Antolakuntza dinamikaren alderdi ezberdinak ezagutu eta desberdintzea: lidergoa, zuzendaritza, planifikazioa,...

## **II. EDUKIAK**

### **1. Erakundearen Psikologia**

- 1.1. Erakunde kontzeptua.
- 1.2. Antolakuntzaren printzipioak.
- 1.3. Erakundeen sailkapena.
- 1.4. Erakundeen antolaketa.
- 1.5. Erakundeen jokabidea.
- 1.6. Taldeak erakundeetan.
- 1.7. Gizarte Hezitzailea taldeen kudeatzaile gisa.

### **2. Erakundearen ikuspegi sistemikoa**

- 2.1. Eredu sistemikoa.
- 2.2. Hezkuntza erakunde sistema gisa.
  - 2.2.1. Kultura, erakundearen klima eta gatazkak.
- 2.3. Erakundearen dokumentu instituzionalak.
  - 2.3.1. Proiektu instituzionala, urteko plana eta urteko txostena.

### **3. Egitura elementuak**

- 3.1. Organigrama: definizioa, funtzioak, errepresentazio moduak eta tipologia.
- 3.2. Lanpostuen definizioa, analisia, deskribapena eta balorazioa.
- 3.3. Zuzendaritza lana eta lidergoa.
  - 3.3.1. Lidergo estiloak.
  - 3.3.2. Eginkizunak eskuordetu.

### **4. Lan bilerak eta erabakiak hartzeko teknikak**

- 4.1. Bilera eraginkorrerako rolak.
- 4.2. Bileraren faseak.
- 4.3. Arazoen ebazpena eta erabaki-hartze teknikak.
  - 4.3.1. Erabaki-hartzea.
  - 4.3.2. Arazoen ebazpena.
  - 4.3.3. Arazoak aztertzeko teknikak eta erabaki-hartzea.
- 4.4. Gatazkaren mintzaira.
  - 4.4.1. Komunikazio estiloak.
  - 4.4.2. Gatazken kudeaketa.

### **5. Prozesuen hobekuntza**

- 5.1. Sarrera: lidergoaren eta pertsonalaren zereginak.
- 5.2. Prozesuetan oinarritutako ikuspegia kudeaketaren printzipio gisa.
- 5.3. Kudeaketa eredu prozesuetan oinarritzeko bidea.

## **III. METODOLOGIA**

Hiru jardun mota izango ditu irakasgai honen prozesuak:

- Irakaslearen azalpenak: irakasgaia osatzen duten gaien inguruko ahozko azalpena.
- Gelako jarduerak: irakasgaia osatzen duten gai bakoitza lantzeko ariketak izango dira.
- Gelaz kanpoko eginkizunak: irakurketak, jarduerak eta taldeko lana.

Metodologia honek ezinbestean ikasleen parte hartzea behar du. Hau horrela izanik, ikasleen parte hartzeak garrantzia handia izango du eta **eskola orduetara etortzea kontrolatuko** da.

## **IV. EBALUAZIOA**

Ebaluazioak bi aukera eskaintzen ditu. Aukera bakoitzaren xehetasunak ondoren aurkituko dituzu:

*A. AUKERA: ESKOLA ORDUETARA DATORRENARENTZAKO.*

- **Eskola orduetara etortzea:** Eskola ordu kopuruaren %75a ezinbestean. Bestela, B aukerara pasatuko da zuzenean. Ikasleak aurrez erabaki eta jakinarazi<sup>1</sup> beharko du bere aukera zein izango den. **Epea: otsailak 21.**
- **Taldeko ikerlana**<sup>2</sup>: Irakasgai honetan ikasleek gehienez 5 kide-tako taldea osatu behar dute. Lana, erakunde (erakundea, elkarte, GKE, entitatea,...) baten azterketa izango da. Practicum egiten ari zareten erakundea hautatzea iradokitzen zaizue. Taldea osatu eta jakinarazteko<sup>3</sup> epea **otsailak 28** da.  
Taldea emateko epea: **Maiatzak 22.**
- **Azterketa:** amaieran eta ezarritako datan egingo da proba. Sei puntu balioko ditu azterketak.

Irakasgaia gainditzeko ezinbestean bai azterketa eta bai lana gainditu beharko dira. Honela banatuko dira puntuazioak:

- Azterketa: 6 puntu.
- Taldeko ikerlana: 4 puntu.

*B. AUKERA: ESKOLA ORDUETARA EZ DATORRENARENTZAKO:*

- Ebaluazio aukera jakinarazteko fitxa bete behar da. Programaren amaieran dago.
- Irakaslearekin adosturiko **laburpena** egin behar da. Azterketara aurkezteko laburpen hau derrigorrez egin eta entregatu behar da.
- **Ikerlana:** Eskola orduetara etorri ezin dutenek, bakarka edo taldeka, erakunde (erakundea, elkarte, GKE, entitatea,...) baten azterketa egingo dute. Practicum egiten ari zareten erakundea hautatzea iradokitzen zaizue. Taldea osatu eta jakinarazteko epea **otsailak 28** da. Taldearen osaketa, hautatutako erakundea eta harremanetarako datuak jakinarazteko fitxa bete behar da. Lana emateko epea: **Maiatzak 22.**
- **Azterketa:** amaieran eta ezarritako datan egingo da proba.

Honela banatuko da puntuazioa B aukeran:

- Azterketa: 7 puntu
- Ikerlana: 3 puntu.

<sup>1</sup> Programaren seigarren orrian aurkituko duzu zure aukera jakinarazteko fitxa. Bete zure datuak eta eman irakasleari otsailak 21erako.

<sup>2</sup> Programaren zazpi eta zortzigarren orrian aurkituko duzu.

<sup>3</sup> Programaren seigarren orrian aurkituko duzu talde lanerako bete beharreko fitxa. Bete datuak eta eman irakasleari otsailak 28rako.

## V. BIBLIOGRAFIA

### Oinarrizkoa:

- Gil Rodríguez, F. & García Saiz (1996). *Grupos en las organizaciones*. Madrid: EUDEMA.
- Katz, D. & Kahn, R.L. (1986). *Psicología social de las organizaciones*. Mexiko: Ed. Trillas.
- Munduata Jaca, L. & Martínez Riquelme, J.M. (1994). *Psicología de la Organización*. 2 vol. Madrid: UNED.
- Robbins, S. P. (2003). *Comportamiento organizacional*. Madrid: Pearson Prentice Hall.
- Thomsett, M.C. (1990). *Las reuniones de trabajo, Cómo planificarlas, organizarlas y dirigir las de forma eficaz*. Bartzelona: Norma.

### Osagarria:

- Aubrey, R. & Cohen, P. (1995). *La organización en aprendizaje permanente*. Bilbo: Deusto.
- Blanchard, K., Oncken, J. & Burrows, H. (1990). *El ejecutivo al minuto y la organización del tiempo*. Bartzelona: Grijalbo.
- Blanco, A., Caballero, A. & Corte, L. (2005). *Psicología de los grupos*. Madrid: Pearson Prentice Hall.
- Borisoff, D. & Victor, D. A. (1991). *Gestión de conflictos*. Madrid: Díaz de Santos. 3-30 orr.
- Drucker, P. (1996). *La gestión en un tiempo de grandes cambios*. Bartzelona: Edhasa.
- Elgoibar, P. (1994). *La motivación de los dirigentes*. Donosita: Kutxa Fundazioa.
- Gairín, J. & Darder, P. (1994). *Organización de centros educativos. Aspectos básicos*. Bartzelona: Praxis.
- Hodge, B.J.; Gales, L.M. & Anthony, W. P. (2001). *Teoría de la organización: un enfoque estratégico*. Madrid: Pearson Prentice Hall.
- ICE DEUSTOKO UNIBERTSITATEA. (2000). *Liderazgo y organizaciones que aprenden*. Bilbo: Mensajero.
- Kravetz, D. (1990). *La revolución de los recursos humanos*. Bilbo: Deusto.
- Morgan, G. (1990). *Imágenes de la organización*. Madrid: Rama.
- Quintanilla, I. & Bonavía, T. (1993). *Dirección participativa*. Madrid: EUDEMA.
- Senge, P. (1998). *La quinta disciplina. El arte y la práctica de la organización abierta al aprendizaje*. Bartzelona: Granica.
- Valls, S. A. (1998). *Las 12 habilidades directivas clave*. Bartzelona: Gestión 2000.
- Vernis, A.; Iglesias, M.; Sanz, B. & Sanz, A. (2004). *Los retos en la gestión de las organizaciones no lucrativas*. Bartzelona: Granica.
- Vroom, V.H. & Arthur, G.J. (1990). *El Nuevo liderazgo: dirección de la participación en las organizaciones*.

**Aldizkariak:**

Organización y gestión educativa: [www.oge.net](http://www.oge.net)

Revista de Educación Social: [www.peretarres.org/revistaeducacionsocial](http://www.peretarres.org/revistaeducacionsocial)

**Webguneak:**

Ikaskuntza Komunitateak: [www.comunidadesdeaprendizaje.net](http://www.comunidadesdeaprendizaje.net)

[www.eduso.net](http://www.eduso.net)

Eduso: [www.eduso.net/res/](http://www.eduso.net/res/)

Fundacio Pere Tarrés: [www.peretarres.org/index\\_cast.html](http://www.peretarres.org/index_cast.html)

Gizarte Hezitzaileen Euskadiko Elkargoa: [www.euskalnet.net/gizaberri](http://www.euskalnet.net/gizaberri)

## JAKINARAZPEN FITXAK

### **EBALUAZIO AUKERA**

Izen abizenak: \_\_\_\_\_

Harremanetarako:

Tlfa: \_\_\_\_\_

E-posta: \_\_\_\_\_

Aukera:  A  B

### **TALDEKO IKERLANA**

Ebaluazio aukera:  A  B

Taldearen izena: \_\_\_\_\_

Taldekideak:

- 1.
- 2.
- 3.
- 4.
- 5.

Harremanetarako:

Tlfa: \_\_\_\_\_

E-posta: \_\_\_\_\_

## **TALDEKO IKERLANA**

### Gidoia

Ikerlana: erakunde baten azterketa.

Talde txikitan, gehienez bost lagunekoa, erakunde konkretu (erakunde, entitate, GKE, elkarte,...) baten inguruko lana egin behar da. Practicumean izandako erakundea erabili daiteke, bai baten zein bi edo gehiagoren arteko alderaketa egin daiteke nahi izanez gero.

Lanak bi atal izango ditu:

### **I. ATALA: Erakundearen antolaketa.**

#### **1. Sarrera:**

- Aztertuko den erakundearen aurkezpena: izena, kokapena, zein den bere jarduera nagusia,...
- Aukeraketaren zergatiak: Aukeraketa zergatik egin den. Alderaketarik egin behar baduzue, aipatu zergatia eta alderaketaren ondorioz zer aurkitzea espero duzuen.

#### **2. Erakundearen ezaugarriak:**

- Zeintzuk osatzen duten: talde profesional ezberdinak.
- Helburu orokorrak.
- Organigrama.
- Lan banaketaren egitura: Dauden lan eta zeregin ezberdinak, zeintzuk arduratzen diren lan edo lantalde bakoitzaz, zeintzuk koordinatzen dituzten lan ezberdinak,... Zein lan betetzen du hezitzaileak bertan?
- Baliabide pertsonalez gain zein beste baliabide dauzka erakundeak? Espazioak, materialak, ekonomikoak,... Baliabide hauen aukera eta zailtasunak adierazi, erabiltzen den talde dinamikari erantzuteko.
- Ingurunearekin harremana: Modu labur batez aurkitzen den testuingurua deskribatu. Ingurune horretan dauden beste erakunde zein profesionalekin dituen harremanak adierazi. Programa berezi zein europar edo internazionalak diren proiektuetan parte hartzen duten.

#### **3. Erakundearen funtzionamendua:**

- Zuzendaritzaren funtzioa: Lagun bakarrekoa edo taldekoa? Nork eta nola izendatzen du/ditu erakundearen liderrak? Berez ezarritako liderraz gain besterik ba al dago? Nola ezarri, kontrolatu eta gainbegiratzen da bertako profesionalen lana? Lanaren eskuordetzerik ba al da?
- Lidergo estiloa: Pertsonalitate, jokabide edo testuinguruaren araberrako bereizgarritasun bezala.
- Erakundea osatzen duen langileriaren aukeraketa eta formakuntza: Erabiltzen diren irizpideak. Jarraitzen den aukeraketa prozedurak? Nola aukeratzen da langileen etengabeko formakuntza, edukiak, finantzaketa, formakuntza denboraldiak,...
- Lan bilerak eta erabakien kudeaketa: Bilerarik egiten al da? Zein helburu, maiztasun eta luzerakoak? Moderatzailek ba al dago?

Nork/nortzuk egiten dute deialdia? Eta nortzuk koordinatzen dute? Beti gai-zerrenda batekin antolatzen al dira? Bileratan, akta edo bilera-agiria jasotzen al da?

#### **4. Ebaluaketa eta hobekuntza prozesuak:**

- Prozesuen maiztasuna: Ebaluatzen diren alderdiak. Erabiltzen den prozedura. Topatzen diren hobekuntzak aurrera eramaten al dira? Nola? Noren bitartez?
- Jasotako informazioaz gain era baikorrean ebaluatuko dira: Antolaketarekiko, ezaugarriekiko,... adostasun edo desadostasun iritziak; gizarte hezitzaileak bertan eduki ditzakeen rolen azterketa; atentzio berezia izan duen alderdiren bat; zerbait aldatzekorik balego zuen ustetan (zergatiak eta proposamenak).

### **II. ATALA: Hausnarketa eta egindako lanaren balorazioa.**

#### **5. Aukeratutako erakundea aztertzeko jarraituriko prozedura. Lan plangintza:**

- Lan plangintzaren prestakuntza: taldeko lan-saioak, iraupena eta asistentzia portzentajea.
- Erakundearen azterketa egiteko, talde lanetik sortutako lan-plangintza: zer egi nahi da, nola egin daiteke, nola banatu lana kideen artean,...
- Lan-plangintza aurrera eramateko jarraitu den lan prozedura: Erabilgarria izaten da bilera bakoitzeko akta edo bilera-agiria jasotzea. Honela behar den informazioa jasoko duzue: dokumentu instituzionalak, informazio liburuxkak, erakundearen bertan, beste bitarteko batzuek erabiliz...
- Egindako lanaren balorazioa: taldeko kideen itzarobideak edo espektatibak betetzen ditu, lanaren zein alderdi izan da baloratuena, non azaldu dira arazoak, zein arrazoi egon daitezke,...
- Taldekide bakoitzari 1etik 10erako kalifikazioa ipiniko zaio egindako lana eta ekarpena kontutan hartuta.

#### **6. Orri pertsonala:**

- Taldeko kide bakoitzak lanean izan duen ekarpenari buruzko hausnarketa pertsonala egingo du. Izan duen lankidetzaren, zer egi duen bakarrik, zer ikasi duen prozesuan zehar (maila pertsonalean zein profesionalean), zer izan den gustukoena, hobekuntza proposamenak taldeari, norbere kalifikazioa egindako lana kontutan hartuta (1etik 10era) eta bestelakorik balego, erantsi daiteke.

#### *Oharrak:*

- Taldeko lanaren ebaluazioa egiterakoan kontutan izango dira bi puntuazioak, alegia bai norbanakoa zein taldearena.
- Lana aurkezteko epea bai A zein B aukerakoentzako maiatzak 22 izango da.
- Gelako erritmoaren arabera jarriko dira aurkezpen datak.



